

NOTA DE PRENSA

EKIPAMENDU PUBLIKOETARAKO EGOKITUKO DITU BILBOKO UDALAK OTXARKOAGAKO MARIAREN IZEN TXIT SANTUAREN ELIZAREN LOKALAK

- **Udalak, Udal Etxebizitzak eta Elizbarrutiak elizaren erabilera aldatzeko Hitzarmen sinatu dute.**
- **Ordainetan, 834.460 eurotan balioetsitako elizari atxiki gabeko lokalak, Justo eta Artzain Santuen eliza eta bi apaizetxe eskualdatuko dizkio Udalak Elizbarrutiari.**
- **Hitzarmen honen bitartez, Otxarkoagako parrokiak erregularizatu eta eremu berriez hornitzen du auzoa, auzokideen erabilera eta gozamenerako.**

Bilbo, 2008ko irailak 8. Auzoan ekipamendu publiko berriez gozatzeko aukera izango dute Otxarkoagako auzokideek, Udalak eta Bilboko Eliza Katolikoak - Elizbarrutiak sinatu duten hitzarmenari esker. Honen bitartez, auzoko Gizarte Etxearen ondoko Langaran kalean kokatutako Mariaren Izen Txit Santuaren elizaren lokal batzuk erabiltzeko eskubidea lagatzea erabaki da.

Gaur egun, bi Eliza, erantsitako bi eraikin edo apaizetxe daude Otxarkoagako auzoan. Hitzarmen honen bitartez, Elizaren zati bat erabiltzeko eskubidea berreskuratzen du Bilboko Udalak, eta honi esker, 529 metro koadroko azalera ekipamendu publikorako erabili ahal izango da. Hartara, Bilboko Elizbarrutiak sakratutasuna kenduko dio tenpluari, bai eta erlijio-sinboloak bertatik eraman ere.

Ekipamendu berriak Mariaren Izen Txit Santuaren Elizan dauden lokalek hartuko dituzte, eta ordainetan, tenpluari atxiki gabeko lokalak, Justo eta Artzain Santuen Eliza -Kepa Enbeita kalean kokatutakoa- eta bi elizetara atxikitako bi Apaizetxeak emango zaizkio Apezpikutzari, hau da, 8 etxebizitza eta lokal. Izan ere, eskualdatutako guztizko azalera 1.922 metro koadro hartzen ditu.

Jabetzaren balioa **ekonomikoki konpentsatzeko**, Elizbarrutiak **838.460 euro** emango dizkio Udalari. Bestalde, Bilboko Udala arduratuko da lokalak ekipamendu publiko bilakatzeko obrak gauzatzeko gastuez.

SALDUKO DIREN HIGIEZINAK

- **Mariaren Izen Txit Santuaren elizatik bereizitako lokalak (Barrutiko zentroaren ondoan – Erdigunea). 345 m²**
- **Langaran kaleko 5. zenbakiko Apaizetxea. 8 etxebizitza eta lokal. 318 + 180 m² = 498 m²**
- **Justo eta Artzain Santuen Eliza (Kepa Enbeita plaza-Iparraldea). 505 m²**
- **Zizeruene kaleko 2. zenbakiko Apaizetxea. 8 etxebizitza eta lokal. 366, 80 +207 m² = 573, 80 m²**

Aurrekariak

Etxebizitzako Institutu Nazionalak sustatutako Otxarkoagako Auzune Zuzenduaren Antolakundeak (1961eko uztailaren 20ko Dekretua) eraiki zituen Elizak eta Apaizetxeak, eta 1993ko irailean laga zitzaizkion Bilboko Udalari. Era berean, Bilboko Udalaren Udal Etxebizitzak erakundeari laga zitzaion Otxarkoagako Auzunea 1994ko azaroan.

Eraiki zenetik, eremu pastoral hauen jabetza eskualdatzeko eskatu dio Apezpikutzak Udalari, baina orain arte ezin izan da gauzatu, arazo tekniko eta legalak medio, besteak beste, Jabetza Erregistroan Etxebizitzako Institutu Nazionalak jarraitzen zuelako titular gisa azaltzen edo Otxarkoaga Auzoko etxebizitzak eta lokalak eskualdatzeko esparru arau-emailerik ez zegoelako.

Hitzarmen hau sinatzean gauzatu egiten da eskualdatzea, Otxarkoagako parrokiak erregularizatzea lortuz, eta aldi berean, auzokideek erabili eta gozatzeko ekipamendu berriak kokatzeko espazioa bermatuz.

UDALA . AYUNTAMIENTO

Prentsa Kabinetea - Gabinete de Prensa E. ERKOREKA PLAZA, Z/B 48007

BILBAO

TFN: 94 420 52 61 / 94 420 48 88 FAXA: 94 420 52

16 H. ELEK: PRENSA@ALCALDIA.BILBAO.NET

WWW.BILBAO.NET